

# ALKATE SOINUA

LEIZ

Jaietan gaituzue. Urte osoan lanean jarduna denak, jaiak ere bear ditu. Ta, errenteriarak, Madalen jaiak bereziki ospatzen dituztelako sona, nun nai entzun dezakegu. Gazteak... diralako, eta gazte izanak... orain dik ere gazteen sua daramatelako.

Udalak eraltzen dituen jaiet, erritar denak, zeoro susperturik, bearrezkoa duten bizitasun ta berotasuna ematen die.

Bere izena ezarri zion kalearen muga, daukagu Madalenako elizaxoa. Urte osoa bere barruan egin dugu, erriko Zaindaria. Ta, inork egitekotan, berak egin bear ba, errian zear urteroko ibilaldia. Jaiak dirauten bitartean berriz, Eleiz Nagusian dizu ostatu.

Dagokionez, aundikiro egin oi du joan-etorria. Gizon indartsuen bizkarrean, zutik, lerdan... Ortarako bereganatzen dira, Alkatea buru dutela udal-gizonak: bidaldian laguntzeko. An egoten dira, ere, zai-zai, erriko semeak... betikoak.

Ba datoz!!!... Ikusi ezarren, txistu otsak adierazten digu. Alkate soinua entzun dezakegu...

Betidanik, alako zirrara gozoa sortzen du gure barrenean, Alkate soinua entzuteak. Erriko jaietan batez ere. Ain dugu aundi, ozentsu, eder...

Or erriko agintariak... Baina, zer ikusten dugu?... Nun utzi ote ditue Alkate ta ordezkooak, agintearen seinale diren zumeak?... Uztai biurtutako zigorren orde, menpeko dituzten ertzainen kideko makilak dituzte eskuetan... Ta, ori ez!!... Oitura zaarrekoak, uztai zume zigorrak dira!

Gorrotorik gabe, legeak bigundu, ta guraso maitaleen antzera bete arazten dituen zigorra. Laztasunik gabe, bete bear direla adierazten duen zigorra. Biurtu, biritu, uztai eginarren, inoiz ere ausi ez ditekean zume biguna. Norbaitek maltzurki, legez kanpo ibili nai izatera, gorputzaren neurriak biziro ongi artu ditzazkean zigorra. Gurea!...

Ezin onartu diteke inolaz ere, gogorkeriaz baizik ez dakian makil arrotza, Gurea ez dan aginte ezaugarria. Orrekin ez diteke Alkate izan gure errian. Ezin babestu ditzake erritarak, makila arrotza eskuan daramalarik.

Ziur gaude, oitura zaarren maitale ta erriko semea denak, bilatu ezik aurkituko ere duala, aginte seinalea den zigorra. Uztai biurtutako zume biguna. Erabili bear izatera ere, gizonki ta zuzen, gogorkeri gabe erabili dezakean zigorra.

Orduan, bai, Alkate soinuarekin ager ditezkeala Madalenara. Erritarra ez izan arren, ainbeste maite zuan Lavilla'k eresbatzaren (bandaren) laguntza eman zionez gero, inoiz baino ere ederragoa den Alkate soinua. Gorengo txistulariak edatu oi zuten, erriak bere agintariet eskeintzen dien Alkate soinua. Erri baten eresia, erriaren anima.

TXISTU 1°

50" R.A.

TXISTU 2°